

## “Ez, zientzia ez da Egia”

Javier Armentia | Astro zer edo zer

Pamplonetario izeneko zer bat zuzentzen du, nahiz gizakia Ilargira iristean ohean zegoen.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Josu Santesteban



### Zenbat aldiz eskatu dizute izarrak ikusarazteko?

Lehen aldia da, egia esan... Baina askori ikusarazi dizkiot edo, gutxienez, askorekin ikusi ditut.

### Ze, izarrak ikusteko, zer da onena?

Argiak itzali, hiriak bilakatu diren farola baso hauetatik korrika ihes egin eta gauarekin elkartzea.

### LSD, estasi, anfetaminarik ez, beraz?

Beste gauza batzuk ikus ditzakezu psikotropikoekin, baina gogoia baino ez da behar izarrak ikusteko. Eta konpainia ona...

### Aizu, Egia omen da zientzia.

Ez, ez da Egia, liburu lodi edo koloretako tunikadun jendearen menpeko dogma ez den zerbaiten bilaketa baizik.

### Ez dakit, literatura asko dagoela iruditzen zait.

Poesia ere bai. Imajinarioa dago, sormena, ideia berri eta hobeen etengabeko bilaketa. Lehen mailako sorkuntza kulturala da zientzia, baina ez dago engainurik ez fikziorik.

### Literaturearekin gauza bat du komunean: astu-na da askorentzat.

Zalantzarik gabe, literaturearekin batzuetan gertatzen den bezala, gaizki eta gogorik gabe azaltzen digutelako.

### Eskerrak Punset dugun!

Ez. Eskerrak unibertsitateak eta ikertzaileak

ditugun, karrera zientifiko bat egitera animatzen den jendea. Besteok saiatzen gara mundu apasionagarri bat ezagutarazten.

### Euskal Herriko Punset zintugulakoan...

Inolaz ere ez. Kuriositatea duen tipo bat naiz, lotsarik gabea.

### Zientziak ez du leku handirik telebistan. Bai sasi-zientziek.

Egia. Baina antzeko zerbait gertatzen da kazetaritza eta xeblekerien sasi-kazetaritza-rekin. Hedabideetako programatzaile eta jabeak dira babaloreak, edo maltzurak.

### Astronomia eta astrologiaren artean, handia da aldea?

Galileoren eta bere teoriak arbuiztera kondenatu zutenen artekoa bezain handia. Alderatzen ari zara zientzia eta sineskeria. Eta negozioa.

### Ezin gara inorekin fida beraz, zientzialariek ez bada?

Ez behintzat zientzialaria izateagatik soilik. Komeni da fidatzea modu lasaian froga daitekeen horrekin, antigoaleko zerak, irakaspenak, botere kontuak ahotan hartu gabe.

### Eta, Messiz harago, ba al da Jainkorik?

Ez. Batzuek denbora batez pentsatu zuten Maradona zela, baina, badakizu, jainkorik gorenak ere idolo ahantzien modura erortzen dira azkenerako. ■